





M-68918  
F-72849

ATA  
5696

# COMUNIO ORDANTZALLEA

MAIZ ARTUAZ

ALDARECO SACRAMENTU SANTUAN JESUSEN

BIOTZA CONSOLATUA.

---

*Aldareco Sacramentu Santua Jesusen Biotzaren erregalo  
edo doaya da.*

---

APAIZNAGUSIAREN BAIMENAREQUIN.

---

VITORIAN:  
MATEO SANZ-EN moldizteguian.  
1869-garren URTEAN.

COMUNICIO OFICIAL

ESTADO DE MÉXICO

ALVARO OBREGÓN, PRESIDENTE  
DE LA REPÚBLICA MEXICANA

BIBLIO CONSOLADA

Alvaro Obregón, presidente  
de la república mexicana,  
envió hoy a su secretario de  
gobierno, el general Alfonso  
Carrillo, una circular en la  
que informó que el presidente  
de la república, Alvaro Obregón,

envió hoy a su secretario de  
gobierno, el general Alfonso  
Carrillo, una circular en la

que informó que el presidente  
de la república, Alvaro Obregón,

## COMUNIO ORDANGARRIA CERTARACO DAN GOGORAZTECO BIDEA.

---

1.<sup>a</sup> Asteoro bacoitzari siñalatzen zayon egunean comulgatzea.

Lenengo: Jésusen Biotza Aldareco Sacramento guciz Santuan consolatzeco.

Bigarren: Elizaren premiacgatic.

Irugarren: Aita Santnagatic.

Laugarren: gure Erreinuagatic.

2.<sup>a</sup> Comulgatzen dan egunean batu bedi intencioaz Jésusen Biotzean, orañdaño Sociedade oneitan sartu diran laroguei milla lagunequin, ceñtuetatiç amar milla egunoro comulgatzen baitiran; eta erregutu beza lagun guci oecgatic, beren oracioac irichi bear dizquiguten gracietan guc ere parte izan dezagun.

---

Листъ от Стогоднина на Българската Академия

Българският език е езикът на българите. Той е езикът на българската народност, която е създадена във времето на българското национално възраждане. Езикът на българите е езикът на българската народност, която е създадена във времето на българското национално възраждане. Езикът на българите е езикът на българската народност, която е създадена във времето на българското национално възраждане. Езикът на българите е езикът на българската народност, която е създадена във времето на българското национално възраждане.

## COMUNIO ORDANGARRIA.

**L**CUSGARRI ederra zan Elizaren lenengo demboretako cristauac beguietaratzan zutena, bada cristau ayec Apostoluen encargúai leyalqui eta cintzo eranzunaz Comunio Sagradua artugabe iñoz ere mezaco sacrificio adoragarria enzuten etzuten. ¡Cembañ indar bérengan senti zuten! ¡Cembañ caridade guciac alcarrequin batutzen cituan! Ciran guciac anima bat eta biotz bat baicic etzuten. Baña eta ¡indar ceñ vici eta era-guillea ematen zuan beren vertuteen ejemplo ederráç Eliza jayoperriaren aurrerapenac lembaitlen irichi citecen, gauza on guciac eguitéco!

Virtute eder oen oroipenac ecuscarri añ miragarri hura gure egunetan berriro sortu eta acitzeco zale eta deseoa esnatu ditu, Comunio ordangarriaren obra andi au piztu, eta maiz comulgatuaz vici diran gaurco eguneago cristauen arteko unio edo alcartasun santu bat ipintzeco. Eta onetaraco esango degu cerbait alcartasun onen gañean.

Elizaco famili andiaren zati guciz maiteari becela atseguin contentuz beguiratzen dien Jaungoicoaren beguien aurrean or-emen erri eta baserrietan sacabanatuta egonie, ¡cergatic alcar artu eta batzuec besteacquin aditubear etziran Mai Santuaren aurrean belaunicatzen

diranean guciac asmo, gogo eta intencio bat berarequin alcorganatzeco, guciac vicitzaren ogiberarequin mantentzeco! Beren erregu, beren negar eta malcoen bidez guciac asmo, zale eta deseoaz biotz bacar batetic irten eta ao batez adirazten balitzte becela, guciac intencio bat berá, egarri bat berá iduquiaz, *¿cer Jaungoicoagandic irichico ez luteque?*

Au onela dala ezagutu, eta asco eta asco cristau irazaqui beargai jaungoicozco onetaraco listatu dira. Bacar bacarric falta zan Jaungoicoagandic erruqui ugaritsuagoac gueguia adi cezaqueen dei bat, guciac alcorganatzeco dei bat, Elizácar daramazquitian persecucio latzen erdian biotzetan berotasun andiagoa, prestutasun areagoa, eta amore gueyagoa esnatzeco diñaco dei bat falta zan.

Jesucristo berá encargatu zan biotzetic intendaco aguindezco deadar au, ots au, dei au emateaz: nai du eguiten zayozcan bidegabekueri itsusien ordaña Comunio santuaren bidez.

Ordañau escatu du izatez bere Biotz Jaungoicoaganaco jayera azquenengo dembora oetan guri aguertuaz, bere espasunac eracutsita. Eguiaz, *¿nore ezdacus berealatic ecen, izanic Biotz Sagraduaganaco jayera, Jesucristoc berá aguertzen duan becela, bere amorezco Sacramentuan digun onguinal eta amorearen ezagierra gueguia berari eracusteco, Sacramentu onetan artzen dituan bidegabekueri itsusiac ordañtzeco, nore ezdacus, diot ostera, Comunio ordangarria dala bi gauza oec batetan eguiteco bideric egoquie-*

na? Eciñ isuri citequean Jesusen Biotz Jaungoicozcoaren aimbeste zauriren gañera indar andia-goo balsamo sendagarriagoric. Bere amorezeo Sacramentuan eguiten diozcate esquer beltzeco guizónac aimbeste bat irañ eta bidegabe itsusi, eta au bertan alaitzen eta consolatzen dute esquer eta ezagüera oneco biótzac, eta anima iracequi oec aleguin guciaz sayatzen dira, non eta esquergabequeria gueyena eguiten zayon, an bertan esquer on eta ordañ sari gueyago eta an-diagoac ematera.

Baña eztezagun luzatu esatea ere, eeen Comunio ordañgarriaren Congregacio edo batzarrean sartuta daudenae izan bear dirala Biotz Sagraduaganaco devocioaren celo eta egarriric andiena aguertzen dutenetacoac. Person oec aimbeste on eracartzen duan jayera onetatic alcargandie urrutiratu ez, baña lenaz gañera bes-te locarri batez guciac alcarrequin lotutzeco modu eta erac billatzen ditugu.

Biotz Sagraduaren Cofradi edo Congregacioan sartuta dauden cristau guciac Jesusen banderapean portizqui peleatzen diran soldadu bulardetsuac dira; baña cernai estandarte edo banderapean arquitzen dira oi ez becelaco hazáñac eguitera sayatzen diran soldadu esleituac, eta onelacoac dira Comunio ordañgarrirako alcar artuta dauden persónac. Congregacioac siñalatzen dizten gáuzac eguiteari guchi iritziz, besteai gañez eraguin naico diezate Jesusen Biotzari gogocoen zayon jayeran, Jesusec berácañ viciro encargatu duan jayeran: ez dira con-

tentatuco béren zale eta deseoa betetzeco Biotz Sagradu oni beste gañeracoac eman oi diozcaten consuelo eta atseguin-contentuac emateaz: <sup>a-</sup> yatuco dira sacrificio andiagoac escañtzena. Jarriko dira zazpiña lagunezco Corúa, bacoitza astean beñ comulgatzeko, edo ta ogueita amarnacoac, illean beñ comulgatzeko, onetaraco lagun bacoitzarentzat aututaco egunean comulgatuaz; zaituco dute Jesusen Biotza edo egongo dira Jesusen Biotzaren aurrean, beñere gueratugabe tiratzen zayozcan sayeta edo flechai aldeeracitzeko. Béretaco bat sartuko da egun oro contuartzera, biotzen Erreguearen aurreco goardia edo centinela becela, gueraeraci eciñ izan dan flecha ilgarría bereala heridatic ateratzeko.

Orra emen itz bitan coru oec certaraco diran: Jesus eta Mariaren Biotz sagraduen congregacioetako lagunic devociotsuenen unio eta alcar artze bat devocio oni beste gañeracoac baño obeto jarraitzeco.

¡Betoz bada biotz prestuko animae gucia mai tagarria dan Biotz onen inguruau alcorganatzera, Biotz au ecertan ezdaucatenen, beraganako otz edo epel daudenek, berari gorroto dioteneng eta berari aimbeste sacrilegio eguiten diozcateneng aimbeste eta aimbeste sacrilegio itsusi ordañtzena! ¡Betoz bada Jesusen Biotzaren adisquide eguiazcoac devocio sutu batezko Comunio bat aste oro edo illoro berari escañtzena; eta Biotz Sagradu oni nai daquiola arren, alcarcarrartze au iristea, onetaraco burutacioa eman duan becela!

JESUSEN BIOTZAREN DEVOCIOAREQUIN COMUNIO ORDAÑGARRIA  
BATUTZECO ARRASOI EDO MOTIVOAC.

**M**otivo oec atera dira Margarita Maria veneragarriari Comunio ordañgarria eguitera beartzeco, eta batez ere Comunio santuaren bidez bere Biotz Jaungoicozcoa alaitzeco gure Jaunácar esan ciozcan itzetatic. Ara emen itz ayec:

*Egun batez, dio Margarita Maria veneragarriac, Jaun Sacramentatu aguirricoaren aurrean nengoala, neregan cordegabetua becela, nere sentidu eta almen guciac bilduta, aguertu citzadan nere Maisu Jaungoicozco Jesucristo gloriazko argi-erránuac cerarizquiola, bost eguzquic becela arqui eguiten zuten bere bost llagaequin. Bere guizatasun sagraduari alde gucietatic su-gárrac cerarizquion, eta bere bular adoragarriari alañgóac, non labe sutu bat cirudian. Labe irazaqui onen erdian icuseraci cidan bere Biotz maitagarri gucia, sugar vici oen biltoquia. Orduanche aguertu cizquidan guizónaegananco bere amorearen ecin esan alaco mirariac, eta norao amore au guizonen onguinaiz eraman zuan, eta nola oztasun, uzcurtasun eta esquer-beltza besteric guizónaegandic artzen etzuan.*

*Au miñgarriago zut, esan cidan, Pasioan*

*eraman dedan gucia baño; aimbesteraño non, baldin bérac nere amoreari eranzuten baliete, béracgatic susritu dedan gucia guchitzat iduari-  
co nuque, eta al balitz, oraindie gueyago equingo  
nuque. Baña beren onaren nere egarriari ozta-  
sun eta biotzeco agortasunarequin ezpada eran-  
zuten ez diote. Beñic-beñ zuc, esan cion gañera,  
ayen esquergabequeria alic ongiien ordañ zada-  
zu. Nic nere ecereztasuna aguertu, eta ostera  
eranzun cidan: Ar zazu, orra non dezun zuri  
falta zatzun gucia osatzecoa. Eta bere Biotz Jaun-  
goicozcoa idiqui, eta sugar añ vici eta beroa ir-  
ten zan andic, non, erre eta gueldo biurtzen  
ninduala, begitandu eitzadan. Alaco mella era-  
guin cidan, non, eciñ gueyago iraunic, erregutu  
nion, urrical cedilla nere argaltasunaz. Baña  
ostera eranzun cidan: Nic indartuko zaitut, ez  
izntu; adi zazu nere deya, eta beguira nic nere as-  
móac betetzeo escatzen dizudanari: Lenengo: ar-  
tuco nazu Sacramentu Santuan obedienciae toqui  
ematen dizun guci gucion, onetaraco cernai hu-  
millacio edo mortificacio eraman bear izan arren:  
ar itzatzu guciac nere amorearen siñale eta pren-  
dac becela. Bigarren: Gañera comulgatuco cera  
illaren lenengo ostiral gucietan.*

Beste aldi batean, eraberean Sacramentu  
guciz Santuaren aurrean cegoala, bere zortzi-  
urren edo Octavaco egunetako batean, Jaincoa-  
ren servitzari onec orobat artu cituan Jaun onen  
amorearen gracia, esan al baño andiagoac. No-  
la berac Jaunari eranzun, eta amoreagatic amo-  
rea biurtu arte onic etzuen, Jaunac esan cion:

*Eciñ eguin dizadazuque nere gogoeraeo gauz an-diagoric, nola ta aimbeste bider escatu dizudana equitea.*

Orduan bere Biotz Jaungoicozcoa eracutsiaz esan cion: *Ona emen guizónac añ maite izan dituan Biotz au, guizónai ecertan ere labur izan etzayen, eta bere ongurutzea eta umorea icuseracitzeko urtu eta ecerezlu zeraño irichi dan Biotz au. Guci onen esquer eta czaguératz guizónen queyenac gandie ezdet artzen espada esquer-beltz, desprecioac, ecertan ez iduquitzea eta sacrilegio izugarriac, amorezco Sacramento onetan. Baña oraindic miñgarrien zadana da, ni onela tratatzentzauten biotz oriec niri escañiac izatea. One-gatic escatzen dizut, ecen, Corpusco zortziurrenetic lenengo ostiralean eguin daquidala berarizco elizpesta bat nere Biotzaren honran, bidegabegueri itsusi ayez elizpesta onen bidez aguirian gaiztotzat eman, eta ordañduaz, aldarcetan aguirian egon dan garayan artu dituan trataera gaizto, irañ eta bidegabegueri itsusien ordañez egun berean comulgatuaz. Nic segurutzen dizut, ecen, nere Biotza zabalduso dala honra au ematen diotenen, eta besteac ere onetara muguieracitzen sayatzen diranen gañera bere amore Jaungoicozcoaren egucari eta ondasúnac ugari isurizeco. Baña Jauna, eranzun zuan Maria Margaritac, nori zagozquiero? ;Creatura circu ill oni, peccatori gajo oni, ceñaren gaiztotasuna, asco eta gueyegui bailitzaquean, Jauna, zue escañi dezuna alzeratzeco! ;Eta cer! eranzun cion gure Jaunac, jieztaquizu personic ecerecenaz valiatzen*

*naicela indartsuenac lotsatu eta buruz beeratze-  
co, eta chiquicho eta espiritu zbeartsunacquin co-  
munquiro aguertzen dedala argiroago nere escu  
eta indarra, oec berenez eguin dutela uste e-  
zaten?*

Beste egun batean esan zuan Veneragarriac, ecen, agirian egon zan hostia bat errecibitu ondoan, Jesucristoc esan ciola: *Ene alaba, eman  
dizudan biotzena nator Sacramentu Santuan des-  
honratzen nauten biotz epel eta dolarren bidega-  
be, irañ eta injuriac cere berotasunaz ordañ de-  
guizquidatzun.*

Beste batzuetan gure Jaunácer bere servitzari leyalari esaten cion: *Utzi zadarzu zure biotzean  
atsedeten nere amoreac sufrieracitzen didan eciñ-  
egona cerbait sosegatzeko. Atoz, jan eta edan eza-  
zu nere atseguin-contentuen mayean, errefresca  
zaietan, onela biotz andiaz bideeguin dezazun,  
ceren zure bidaje luce gaitz eta nequezcoa dan,  
eta ceren bidaje onetan arnas eta descantsua  
sarri nere Biotzean artu bearco dezun.*

Beste guertaldi batean nere biotzeco laztan onec esan cidan: *Añ atseguin zat Sacramentuan  
ni errecibitzeko zalez zu egotea, non eta cemba-  
aldiz biotz orretan deseo au sortu, aimbestetan  
beguiratzen diot biotz orri amore andiaz nigana  
eracartzeo.*

Ascencio egun batez aguertu citzadan guciz arguitsu esanaz itz oec: *Zure anima autu det  
lurrean atsedeleko eru izan daquidan; eta zure  
biotza nere amore jaungoicozcoarentzat atseguin  
contentuzko trouu edo jarleku izango da.*

Eta ala Jaunaren servitzari onec Sacramen-  
tu Santuari cion bere amorean deadar eguiten  
zuan esanaz: *Aimbesterañoco deseo eta egarria  
daucat Comunioan nere Jaungoico maitea eta  
nere Jaungoicoaren Biotza arțeco, non eta, suz-  
co bide batean oñ-uts gorrieta ibill bearra banu  
ere, neque au utsa litzaquedala, deritzat, Ogui  
Sagrado au artugabe gueratzea izango litzaque-  
danaren aldean.*

¡Ay eta baldin Comunio ordañgarrirako *al-  
car artu duten* guciak ere deseo santu au baleu-  
cate!

COMUNIO ORDAÑGARRIRACO ALCAR-ARTZEA  
ZUZEN-BIDE EDO ERREGLAC.

1.<sup>a</sup> Alcar-artze onetan parte artu nai duten  
cristáuac iduquico dituzte bérén burúac Jesusen  
Biotza Aldareco Sacramento adoragarrian con-  
solatzéa bérén contura daducatencotzat. Oec  
eguiten dirá mai santu artaco gombidatu, eta  
eguiten dira zorioneco mai santu artara sarri  
joatean (astearen egun bacoitzean bat, aldizca)  
guciz zori oneco.

Joango dira mai santu artara amorez guri  
ematen zaguna an amorez gure barrun-bean  
artzera, Sacramento au ecertan ez daucate-  
nen oztasúnai oracio amoriotsu eta egunoroko  
comunioacquin eranzuteco, eta guizónac Jesusen  
Biotzaren contra Sacramento Santuan eguiten  
dituzten gaiztaqueri itsusi eta esquer-beltz-gaiz-

to guciac albait ónguien ordañzeco: Onelacoa da Sociedade edo alcartzze onen asmoa.

2.<sup>a</sup> Jesusen Biotzaren Congregacioco lagúnen artean eguindaco Sociedade, onetan salua codira gure Jaunari bere amorezco Sacramentuan eguiten zaizcan esquergabequeri beltz itsusien ordañezco adoracio eta obsequio bereciac eguiñ nai diozcaten elizguizon, erligioso, eta guizon edo emacume guciac.

3.<sup>a</sup> Sociedade onetacoac comulgatuco dira astean beñ eta gañera ill bacoitzaren lenengo ostiral edo igandean, ceña baitan gucien Comunio edo Comunio generaleraco siñalatutaco eguna. Egun onetan, albada, izango dute sermoy edo platica bat.

4.<sup>a</sup> Cernai elizatan comulga liteque. Osasunaren faltaz edo beste ecinquizun eguiazcoren bat dala bide siñalatutaco egunean eciñ comulga litequeanean, Sociedadeco lagúnen batequin alcar adituco dute, egun artan bere ordea eguiñ deguion.

5.<sup>a</sup> Aldareco Sacramentu Santu amorezcoan Jesus-en Biotzaren Congregacioan sartuta dau-den guciac daude beartuac Sacramentu onenganaco devocioari dagozquion gauza gucietan bérén celoa besteai itsasteco al gucia eguitera; conturaco: procesioetan, Elizacoac dijoazenean, Sacramentu Santuaren bendicioetan, Jauna patente edo aguirian dagoala eguiten diran elizpestetan, berroguei orduetaco devocioan, meza sarri enzutean eta maiz comulgatzean.

Sayatuco ere da bacoitza bere vicibideae

aguintzen dion eran, beste cristauai, baña batzere aurchoai, Aldareco Sacramentu adoragarriaganaco devocio andi bat sarreracitzera, gogora eraciaz, ecen, eguiaz gure artean viciric dagoala, Jesusen Biotza.

6.<sup>a</sup> Comunio ordañgarriaren Sociedadeco lagúnac daude coruetan bereciac. Coru bacoitzac egun oro comulgatzeko lagun bat nola bear baituan, izango ditu zazpi lagun, buru eguiten duan edo contuartzallea sartzen dala.

7.<sup>a</sup> Corn bacoitzeko buru edo contuartzalleac bere contuco lagúnac bildu, eta aste artan comulgatzeko eguna bacoitzari siñalatu ondoan, eguingo ditu bere coruco lagunen lista bi, biac berdinac, eta bata berac gueratu eta bialduedo dio bestea Sociedadeco Guidari nagusi edo Zuentzalleari.

8.<sup>a</sup> Iru illetatic irura, edo sarriago baldiñ ala nai badu, bialduco ditu Zuentzalleac coru bacoitzeko contuartzalleetara Sociedade onetaco persona celo andienecoen batzuec, listac ondo ote dauden icusteco, eta deritzatenen batzuec atera, eta beste berriac sartzeko, ala bear dala deritzaten gucian.

9.<sup>a</sup> Béren eguinquizúnac dirala bide may sagradura maiz alderatzeko derecha eta oitura ez daucaten personac, eta beragatic astecaco coruetan sartzea aldapa eguiten zayenac, orobat batu litzque ogueita amarnacaco coruetan, eta len asteca esan dan eran illecano corúac ipiñi litzaquee, asmo eta intencio berarequin.

10.<sup>a</sup> Sociedade onetacóac alcarrequin guciz

lotúac daude, edo alcarrequin gueiz bat dira, Jesucristoren Odolaz añ sarri guciae parte artzen duten bidez, alabañan au da caridadearen locarriric obeena, eta ala erregutuko dute bat ec bésteargatic, batez ere Comunio Santua artzen duten egunean.

11.<sup>a</sup> Egun artan bertan erregutuko diote, besteetan baño viciroago Jesusen Biotzari Elizaren oraingo premiacgatic, eta cristau-erri gucia-gatic.

12.<sup>a</sup> Nai izatecoa litzaque coru asco jartzea, esan ditugun gauzetalako, baña ez dira iduqui bear coru oetan arazo edo ecinquizunen bategatik, edo gogoric ezdutelako Sociedadeko obligacio edo eguitecóac ondo betetzen ez dituzten persónac.

*Gure Sociedadeko lagunac badaquite Erregla oec ez dutela iñor beartzan peccatuaren bean.*

---

ASTEAREN EGUNETACO BACOTZERACO JESUSEN BIOTZ SAGRADIARI SACRAMENTU SANTUAN EGUITEN ZAYOZCAN IRAÑETA BIDEGABE ITSUSIAC ALBAIT ORDAÑTECO BEARGAI EDO EGUITECÓAC.

## LENENGO EGUITECOA.

IGANDEA.

## Anima adoratzalleac.

Eucaristia Santuan eguiaz eta benaz arquitzan dan Jesucristo gure Jaunari eguiten diozcan sarritaco adoracio, veneracio eta obsequioen

bidez anima adoratzalleac ordañduco ditu bere  
indar eta eguin-al guciaz Sacramentu Santua-  
ren aurrean eguiten diran moldacaitzqueri za-  
tañ irreverencia itsusi, eta beguiramentuaren  
faltac. Esango du sarri Aldarearen inguruan  
dauden Aingueruacquin: *Santu, Santu Santua*  
*da Eiercituen Jaun Jaungoicoa; beraren gloriaz*  
*betea dago lurra.* Escañico dizca Jesucristori be-  
re Ama gloriaz betearen merecimentuac, lurra-  
ren gañean eguiten dan on gucia, bere Biotz  
Jaungoicozcoaren gloria andienera zucendua  
izan dediñ.

#### VIRTUTE ORDANGARRIA.

Beguiramentu eta errespetorio andiena Sa-  
cramentu guciz Santuaren aurrean.

EGUNÁC DIRAUN BITARTEAN MAIZ ESAN BEAR DAN  
ORACIO LABURRA.

Jesusen Biotza, Jaincotasunaren egon lecua,  
urriqui zaite guzaz.

#### BIGARREN EGUITECOA.

ASTELENA.

#### Anima erruquitsua.

Escatu bear zayo humilltasun andiaz Jesu-  
cristo gure Jaunari Aldareco Sacramentu ado-  
ragarrian eguiten zayozcan bidegabecheri itsusi,  
eta sacrilegio izugarri gucien barcacioa.

Egunác diraun bitartean asco bider espiritu  
tuz Jesusen Biotzean sartu, eta Virgiña guciz  
Santaren Biotz tachagabearen icenean erregu-  
tuco dio, eman dizayola bere merecimentukta-  
tic, eguiten zaizcan bidegabegueri gaiztóac or-  
dañtzeco palta zayona.

#### VIRTUTE ORDAÑGARRIA.

Jesusen doloreai egui eguiazco urricalta-  
suna.

#### ORACIO LABURRA.

Gure pecatúac dolorez urratuta zaduzcaten  
Jesusen Biotza, urrical zaite guzaz.

#### IRUGARREN EGUITECOA.

#### ASTEARTEA.

#### **Anima leyala.**

Sacramentu Santuan gure Jauna añ bacar  
uzteaz eguiten zayon ofensa ordañtzeco, anima  
leyala poztuco da Jaun onequin bat biotz guciaz  
eguinta egoteaz. Escañico diozca Jesusen Biotza-  
ri bere obra on guciak, guizon guciak bere vo-  
rondate santua eguitea iristeco. Escatuco dio  
Virgiña guciz Santari, irichi deguiozcala arren  
bere biotzác ceduzcan prestaera miragarriac,  
esan zuanean: *¡Ona emen Jaunaren servitzaria!*  
berá ere aren guisa egujteco.

VIRTUTE ORDAÑGARRIA.

Jaungoicoac nai duan gucira oso jartza.

ORACIO ALDI LABURRA.

Jesusen Biotz, vertuteen ispilla ederra, urrial zaite guzaz.

LAUGARREN EGUITECOA.

ASTE AZQUENA.

**Anima contuartzallea.**

Sacramentu Santuan ecertan ez iduquiaz, eta alaco oztasunarequin beguiratuaz gure Jaunari eguiten zayon bidegabe itsusia ordañtzeco, anima contuartzallea sayatuco da bere eguin-al guciaz Jesucristoc Sacramentu adoragarrian digun onguinai eta amorea, eta Jaun au artzean izaten diran atseguiñ-contentuac guciai ezagüe-racitzera. Escatuco dio Jesusen Biotz Sagraduari, arren ere ezagutu eta amatu dezatela bere amorea cristau fededun guciak. Mesede au iristeco, bideguingo du Virgiña guciz Santagana ceñaren jayotzac ecarri baicion munduari atseguiñ-contentu eta consueloa, ceren egunsentí eguiazcoa, zucentasunaren eguzquia, au da, Jesucristo munduari adiraci cion.

VIRTUTE ORDAÑGARRIA.

Lagun urcoa Sacramentuac maiz erreccibi-tzen eramatearen celoa.

ORACIO ALDI LABURRA.

Santu gucien atseguin-contentua ceran, Jesusen Biotza, urrical zaite guzaz.

BOSTGARREN EGUNA.

OSTEGUNA.

**Anima amatzallea.**

Ordañduco dio gure Jaunari aimbeste bider alaingo epeltasunarequin bere Magestadea Comunio Santuan artzeaz eguiten zayon bidegabegueri itsusia. Serafiñen biotzacquin berea batuta, bialduco diozca sarritan Jesusen Biotz Sagraduari amorezco actoac, eta escatuco die espíritu doatsu ayei ejercicio satnu au ondo egui-teco berari falta zayona ayec bete dezatela. Erregutuko dio amore garbiaren Ama, Virgiña guciz Santari arren ecio dezala caridadea biotz gucietan, baña batez ere biotz epeletan.

VIRTUTE ORDAÑGARRIA.

Gauzaric chiquienac ere Jaunaren amorez eguiteco leyaltasuna.

ORACIO ALDI LABURRA.

Jesusen Biotza, Jaunaren urrictasun eta amorearen egonlecua, erruqui zaite guzaz.

## SEIGARREN EGUITECOA.

OSTIRALA.



## Anima ofrendatua.

Mezaren sacrificio adoragarrira joateco dagoan oztasuna ordañdu, eta pecatarien contra irazaquia dagoan Jaungoicoaren aserre vicia itzatzeco, anima ofrendatua vicico da beti sacrificio edo ofrenda bat eguiña. Ama Virgiña Doloreetacoaren biotz samurraren bidez egungo dio Jesusen Biotzari anima onec bera dan guciaren sacrificio edo ofrenda, aldarearen aurrean bere burua Jaunari escañiaz, Biotz sagradu onec Jaungoicoari eta guizónai dien ongoinai eta amore sutuac escatzen duan gúcira jartzeko deseо vici batequin.

## VIRTUTE ORDAÑGARRIA.

Sentiduen mortificacioa.

ORACIO ALDI LABURRA.

Jesusen Biotza, Jaincoarequico gure paque eta adisquidetasuna, erruqui zaite guzaz.

## ZAZPIGARREN EGUNA.

LARUMBATA.

## Anima escalea.

Herege eta erligioaren etsáyac eguiten dioz-

caten burla, irañ eta bidegabeac gure Jaunari ordañtzeo, anima escaleac Aldareco Sacramentu Santuaren meditacioan confianzaz bete, eta escatuco diozca Aita Eternoari oracio ~~izq~~ quien bidez bear dituan graciak. Erregutuko dio eguiñ al guciaz Jesusen Biotz sagraduari, gogora ditzala bere urricaltasunac; onetaraco escatuco diozca Virgiña guciz doatsuari bere bitartecotasun indartsuaren laguntzac.

#### VIRTUTE ORDAÑGARRIA.

Caridade eta humilltasunezco gauza guciac eguitea.

#### ORACIO ALDI LABURRA.

Jesusen Biotz, daramazquigun gaitz andietan gure laguntza cerana, erruqui zaite guzaz.

#### GAÑERA COMULGA LITEQUE.

#### IGANDEAN.

Espirituz Magdalenarequin batera bere malcoaz Salvatzallearen oñac bustiaz.

#### ASTELENEAN.

Dicipulu guciz maitearequin batera Jesusen bularraren gañean espirituz jarri eta Jaun oni galdetuaz.

ASTEARTEAN.

Olivetaco baratzan Jesucristo consolatzera etori zan Ceruco Mandatariarequin espirituz batuta.

ASTEAZQUENEAN.

Veronica Santarequin espirituz batu, eta Jesucristoren arpegui adoragarria legortuaz.

OSTEGUNEAN.

Simon Cirinecoarequin espirituz batu, eta Jesucristoren arpegui adoragarria legortuaz.

OSTIRALEAN.

Jerusalengo alabacquin espirituz batu, eta Jesucristogatic negar eguiñaz.

LARUMBATEAN.

Gurutzetic erachi zutenean Mariac besoetan artu zueneco espirituz eta Ama naigabetu onequin batera Jesusen Gorputza artuaz.

SACRAMENTU GUCIZ SANTUARI BIDEGABEQUERIAC  
ORDANTZECO.  
LETEYA. CZ

- Jauna, urrical zaite guzaz.  
Jesucristo, urrical zaite guzaz.  
Jesucristo, enzun zazu gure escaria.  
Ceruco Aita Jaungoicoa, urrical zaite guzaz.  
Munduaren Erredimitzalle Seme Jaungoicoa,  
urrical zaite guzaz.  
Espiritu Santu Jaungoicoa, urrical zaite guzaz.  
Trinidadade Santu, Jaungoico bat bacarra cerana,  
urrical zaite guzaz.  
Pecatarien salvacioagatic ofrendatutaco  
Hostia Santa.  
Gugatic eta guretzac Aldarean humillatu-  
taco Hostia Santa.  
Cristau gaiztoac despreciatzen zaituzten  
Hostia Santa.  
Ascoc zure contra hitzeguiten duten Hos-  
tia Santa.  
Judu eta heregeen escuetara ascotan ema-  
na izan ceran Hostia Santa.  
Zuzaz gaizqui hitzeguiten dutenac ascotan  
saldu zaituzten Hostia Santa.  
Hostia Santa, abereai botaa izan ceran,  
Aingueruen Oguia.  
Hostia Santa, Apaiz fedegabéac deshon-  
ratua.  
Hostia Santa, loitara botatua, osticopean  
zapaldua eta despreciatua.  
¡Oh Jaungoicoa! Lagun zaguzu.

URRICAL ZAITE GUZAZ.

Izan zaquizquigu gure alde, beguira gure erre-guai, Jauna.

Sacramento añ miragarri orretan ecin gueya-Graño beeratua eta humillatua zaudelaco, ordañdu nai zaitugu, Jauna.

Comunio gaiztóac, ordañdu nai dizquitzugu, Jauna.

Zure Elizan eguiten diran gaitzaqueriac, ordañdu nai dizquitzugu, Jauna.

Fedegabeac beti botatzen dizquitzuten blasfemiac, ordañdu nai dizquitzugu, Jauna.

Heregeen desleyaltasun eta seta gogorra, ordañdu nai dizquitzugu, Jauna.

Zure Elizetan esaten diran hitz lotsagarriac, ordañdu nai dizquitzugu, Jauna.

Zure Eliza Santuetan ichusqueriac eguiñaz eguiten dituzten aimbeste sacrilegio, ordañdu nai dizquitzugu, Jauna.

Erregutzen dizugu gueitu dezazula arren crista-gucietan misterio adoragarri oneganaco errespetoa: enzun gaitzatzu, Jauna.

Erregutzen dizugu, aguer deguiezula zure amarezco Sacramentua heregeai: adi gaitzatzu, Jauna.

Erregutzen dizugu, diguzula ayec gorrotatzen zaituzten baño gueyago gue zu amatzeco gracia, enzun gaitzatzu, Jauna.

Escatzen dizugu, hamilltasun guciaz ar zazula eguiten dizugun gure ordañ-saria: adi gaitzatzu, Jauna.

Erregutzen dizugu, gure adoracioa zure gogoco izan daquizula: enzun gaitzatzu, Jauna.

Hostia garbia, beguira zaguzu.  
Hostia Santa, enzun gaitzatzu.  
Hostia manchagabea, beguira zaguzu.  
Jaincoaren Bildots, munduco pecatuac quentzen  
dituzuna: barca zaguzu.  
Jaincoaren Bildots, munduco pecatuac quentzen  
dituzuna: enzun gaitzatzu.  
Jaincoaren Bildots, munduco pecatúac quentzen  
dituzuna: erruqui zaite guzaz.  
Jauna, erruqui zaite guzaz.  
Jesucristo, erruqui zaite guzaz.  
Beguira, Jauna, gure naigabea, eta eman zayo-  
zu gloria zure icen santuari.

### ORACIOA.

Zure Pasio Sagraduaren oroipenaren bidez ce-  
re Aitari gloria betico bat eta guri betico vi-  
citzaraco janaria emanaz, munduaren azquene-  
raño Sacramento guciz Santuan gurequin gue-  
ratu nai izan dezun, Jesucristo Jauna, iguzu fe-  
degabe, herege eta cristau gaitzoacgandic mis-  
terio adoragarri onetan artzen dituzun aim-  
beste injuria eta bidegabe itsusigatic biotz da-  
mutu batez negar eguiteco gracia. Icio gaitzazu  
cristau fededunetatic aldeeguin baño eraman  
nayago izan dituzun irañ beltz itsusi guci oec  
zuri ordañtzeo celo andi batez, Zue, secula  
gucien seculetan Aita Jaungoico, eta Espiritu





